6) Las explotaciones económicas de elaboración, edición, publicación y venta de libros, revistas, folletos, material audiovisual y material multimedia.

7) Las explotaciones económicas de prestación de servicios de carácter deportivo a personas físicas que practiquen el deporte o la educación física, siempre que tales servicios estén directamente relacionados con dichas prácticas, salvo los supuestos de servicios relacionados con espectáculos deportivos y de los prestados a deportistas profesionales.

Artículo 6. *Acreditación a efectos de la exclusión de la obligación de retener o ingresar a cuenta respecto de las rentas exentas percibidas por las entidades sin fines lucrativos.*

La acreditación por parte de las entidades sin fines lucrativos a efectos de la exclusión de la obligación de retener o ingresar a cuenta a que se refiere el artículo 14 de la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo se efectuará mediante certificado expedido por la persona titular de la jefatura de la Sección de Censos Fiscales en el que conste que la entidad ha solicitado a la Administración tributaria la aplicación del régimen fiscal especial regulado en el Título II de la mencionada Norma Foral, ha obtenido el correspondiente reconocimiento al efecto y no ha renunciado a la aplicación del mismo.

Este certificado hará constar su período de vigencia, que se extenderá desde la fecha de su emisión hasta la finalización del período impositivo en curso de la entidad solicitante.



II. KAPITULUA

MEZENASGORAKO ZERGA-PIZGARRIAK

7. artikulua. *Konpentsazio sinbolikoa edo erreputazionala.*

1. Emariak, dohaintzek, ekarpenek edo zerbitzuen doako prestazioek ez dute beren izaera galduko, nahiz eta halakoak egiten dituen pertsonaren edo erakundearen aldeko konpentsazio sinbolikoa edo erreputazional bat egin, betiere haien xede nagusia halakoen publizitatea edo propaganda ez bada.

Konpentsazio sinbolikoa edo erreputazionala egongo da konpentsazio horren merkatu-balioa emari, dohaintza, ekarpen edo zerbitzuen doako prestazioarena baino nabarmen txikiagoa denean; baina beharrezkoa izango da, beti, eragiketaren izaeratik ondorioztatu ahal izatea konpentsazioa jaso duenak egindako jarduketaren xede nagusia dela interes orokorreko xedeak betetzea.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, inoiz ere ez da sinbolikotzat edo erreputazionaltzat hartuko konpentsazioa, baldin eta emari, dohaintza, ekarpen edo zerbitzuen doako prestazioaren eta lortuko den konpentsazioaren artean baliokidetzaren erlazioa badago.

3. Konpentsazio sinbolikotzat edo erreputazionaltzat honako hauek hartuko dira:

a) urteko memorian irabazteko asmorik gabeko erakundea aipatzea;

CAPITULO II

INCENTIVOS FISCALES AL MECENAZGO

Artículo 7. *Compensación simbólica o reputacional.*

1. No perderán el carácter de donativo, donación, aportación o prestación gratuita de servicios los supuestos en los que se produzca una compensación simbólica o reputacional para la persona o entidad que las realice, siempre que no tenga como finalidad principal la publicidad o propaganda de la misma.

En particular, se entenderá por compensación simbólica o reputacional aquella cuyo valor de mercado sea desproporcionadamente inferior al del donativo, donación, aportación o prestación gratuita de servicios realizada, siempre y cuando del carácter de la operación pueda concluirse que la finalidad principal de la actuación efectuada por quien recibe la compensación sea la realización de fines de interés general.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, en ningún caso se entenderá por compensación simbólica o reputacional aquella en la que exista relación de equivalencia entre el donativo, donación, aportación o prestación gratuita de servicios y la compensación a obtener.

3. Tendrán la consideración de compensación simbólica o reputacional entre otras, las siguientes:

a) mención en la memoria anual de la



- | | |
|--|--|
| | entidad sin fines lucrativos, |
| b) eskerrak emateko agiri pertsonalatuak; | b) documentos personalizados de agradecimiento, |
| c) oroitzapenezko plakak; | c) placas conmemorativas, |
| d) kortesiako bilerak egitea zuzendaritza batzordeko edo patronatuko kideekin; | d) reuniones de cortesía con las personas que compongan la Junta Directiva o el Patronato, |
| e) dohaintza emateko ekitaldi publikoak egitea. | e) actos públicos de entrega de lo donado. |

III. KAPITULUA

IRABAZTEKO ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN ZERGA-ARAUBIDE BEREZIA APLIKATZEKO PROZEDURA

8. artikulua. *Irabazteko asmorik gabeko erakundeei zerga-araubide berezia onartzeko prozedura.*

1. Irabazteko asmorik gabeko erakundeek, Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren II. tituluan araututako zerga-araubidea aplikatu nahi badute, Tributu-administrazioari eskatu beharko diote hura aplikatzeko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorrarekin eta artikulua honetan ezarritako berezitasunekin bat.

Betebehar bera izango dute onura publikoko kooperatibek eta ekimen sozialeko kooperatibek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko Foru Arauaren 53.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldin eta aplikatu nahi badute aurreko

CAPITULO III

PROCEDIMIENTO PARA LA APLICACIÓN DEL RÉGIMEN FISCAL ESPECIAL DE LAS ENTIDADES SIN FINES LUCRATIVOS

Artículo 8. *Procedimiento para el reconocimiento del régimen fiscal especial de las entidades sin fines lucrativos.*

1. Las entidades sin fines lucrativos que deseen acogerse al régimen tributario regulado en el Título II de la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, deberán solicitarlo a la Administración tributaria de conformidad con el procedimiento general establecido en el artículo 45 del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, con las especialidades reguladas en este artículo.

Igual obligación incumbirá a las Cooperativas de Utilidad Pública y a las Cooperativas de Iniciativa Social que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 53.2 de la Norma Foral sobre régimen fiscal de las Cooperativas del Territorio Histórico de Bizkaia, desearan



paragrafoan adierazitako zerga-araubide berezia.

2. Erakundeak Tributu-administrazioari aurkeztu behar dion eskabideak honako datuok izango ditu:

a) Eskrituraren edo eratze-aktaren kopia eta estatutuena.

«Mortis causa» egintzen bidez eraturako fundazioen kasuan, eratze-eskrituraren ordeztu, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira eskritura horren baldintza berberak betetzen dituen agiria aurkeztu ahal izango da

b) Memoria bat, honako hauek azaltzen dituen: erakundeak dituen interes orokorreko helburuak, haiek lortzeko egin nahi dituen jarduerak eta jardueraren ondorioz bereziki onuradun suertatuko diren entitateak edo kolektiboak.

c) Txosten bat, erakundeak jarduerak nola finantzatzeko dituen eta bere jardunak ekonomia zein gizartean zer eragin izango duen jasotzen duena.

d) Dagokion erregistroan inskribatuta dagoela ziurtatzen duen agiria. Onura publikoko elkarten kasuan, onura publikoaren izaeraren onarpena egiaztatu beharko da.

e) Erakundearen legezko ordezkariak sinaturako erantzukizunpeko adierazpen bat, Irabazi-asmorik gabeko erakundearen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 5. artikuluan ezarritako betekizunen betetzeari buruzkoa.

aplicar el régimen fiscal especial a que se refiere el párrafo anterior.

2. La entidad presentará ante la Administración tributaria una solicitud que contendrá los siguientes datos:

a) Copia de la escritura o acta de constitución y de los estatutos de la entidad.

En el caso de fundaciones constituidas por actos «mortis causa» se sustituirá, en su caso, la escritura de constitución por el documento que cumpla los mismos requisitos que ésta de conformidad con lo dispuesto en el artículo 8.3 de la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

b) Una memoria explicativa de los fines de interés general perseguidos por la entidad, de las actividades que pretende llevar a cabo para la consecución de los mismos y de las personas, entidades o colectivos que van a resultar especialmente beneficiados por su actuación.

c) Un informe sobre la manera en la que la entidad va a financiar las actividades que va a llevar a cabo, así como del impacto económico y social derivado del desarrollo de su actuación.

d) Acreditación de estar inscritas en el registro correspondiente. En el caso de asociaciones de utilidad pública deberá acreditarse además la obtención de tal reconocimiento.

e) Una declaración responsable suscrita por los y las representantes legales de la entidad sobre el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 5 de la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.



Onura publikoko kooperatiben eta ekimen sozialeko kooperatiben kasuan, erantzukizunpeko adierazpenak bere araubide fiskalean ezarritako berezitasunak beteko ditu; Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko Foru Arauan dago ezarrita araubide hori.

f) Erakundea zerga-araubide berezia aplikatzeko eskubidearen erabileratik baztertzeko kasuetako batean ere ez dagoelako adierazpen espresua. Kasuok jasota daude Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 17. artikuluan 2. eta 3. apartatuetan eta lehen xedapen iragankorrean.

3. Erakundearen interes orokorreko helburuak zeharka lortzen badira, hau da, erregelamendu honen 1. artikuluan adierazitako moduan, orduan, aurreko zenbakian adierazitako informazioaz gainera, honako hauek ere aurkeztu beharko ditu erakundeak:

a) Interes orokorreko helburuak gauzatzeko erabiliko den erakundearen identifikazioa.

b) Erakundearen legezko ordezkariak sinatu beharko dute aurreko zenbakiko e) letran adierazitako erantzukizunpeko adierazpena, eta bertan aipatu beharko dute Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoa betetzen dutela.

c) Azalpen-memoria bat, honako hauek jasotzen dituen: proiektuen gauzatzean jarraipen- eta

En el caso de las Cooperativas de Utilidad Pública y de las Cooperativas de Iniciativa Social, la declaración responsable atenderá a las particularidades de su propio régimen fiscal regulado en la Norma Foral sobre régimen fiscal de las Cooperativas del Territorio Histórico de Bizkaia.

f) La manifestación expresa de que la entidad no se encuentra en los supuestos de exclusión del derecho a solicitar la aplicación del régimen fiscal especial a que se refieren el artículo 17.2 y 3 y la disposición transitoria primera de la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

3. En el supuesto de que la consecución de fines de interés general perseguidos por la entidad se efectúe de manera indirecta en los términos a que hace referencia el artículo 1 de este Reglamento, además de la información a que se refiere el apartado anterior, la entidad deberá aportar:

a) Identificación de la entidad o entidades sin fines lucrativos a través de las que realizan los fines de interés general.

b) La declaración responsable a que hace referencia la letra e) del apartado anterior será suscrita por los y las representantes legales de estas entidades y deberá referirse al cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 4 y 5 de Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo por parte de las mismas.

c) Una memoria explicativa de la labor activa de seguimiento y control en la ejecución de los



kontrol-jarduera aktiboa egin dela, eta zehazki nola erabili diren emandako funtsak. Horrez gainera, erakunde eskatzaileak frogatu beharko du zer bitarteko material eta giza baliabide baliatu dituen.

4. Eskabidea Zentsuak Kontrolatzeko eta Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztuko da, enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan alta edo aldaketa eskatzeko dagokion deklarazioaren bidez, erakundeak zerga-araubide berezia —Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren II. tituluan jaso— aplikatu nahi duen lehen zergaldia hasi baino lehen.

Erakundeak eratu den ekitaldian edo onura publikoko izaera lortu duen ekitaldian aplikatu nahi badu zerga-araubide hori, hilabeteko epea izango du eskabidea aurkezteko, eratu denetik edo izaera hori lortu duenetik aurrera. Eta ondorioak izango ditu eratu den edo izaera hori lortu den ekitaldirako.

Goiko 3. zenbakian adierazitako kasuan, baldin eta araubide berezia aplikatzeko ondorengo ekitaldietan zeharka lortzen baditu erakundeak interes orokorreko helburuak, Zentsuak Kontrolatzeko eta Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztu beharko ditu zenbaki horretan adierazitako informazioa eta dokumentazioa, betiere helburuak zeharka lortzen diren zergaldia hasi aurretik.

proyectos y el destino concreto de los fondos aportados, así como prueba de los medios materiales y humanos a través de los cuales realice dicha labor la entidad solicitante.

4. La solicitud se presentará ante el Servicio de Control Censal y Tributos Locales por medio de la correspondiente declaración de alta o modificación en el censo de Empresarios, Profesionales y Retenedores, con anterioridad al inicio del primer período impositivo en el que la entidad quiera aplicar el régimen fiscal especial establecido en el Título II de la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

En el caso de que la entidad quiera aplicar el mencionado régimen fiscal especial en el propio ejercicio de su constitución o en el que haya obtenido el reconocimiento como asociación de utilidad pública, la solicitud deberá presentarse en el plazo de un mes desde la citada constitución o declaración y producirá efectos para el propio ejercicio de constitución o de obtención del reconocimiento.

En el supuesto a que se refiere el apartado 3 anterior, si la consecución de fines de interés general perseguidos por la entidad se efectúa de manera indirecta en ejercicios posteriores al reconocimiento para la aplicación del régimen especial, la información y documentación a que se refiere dicho apartado deberá presentarse ante el Servicio de Control Censal y Tributos Locales con anterioridad al inicio del período impositivo en que dicha consecución indirecta se efectue.



5. Ogasuneko zuzendari nagusiari egokituko zaio zerga-araubide berezia aplikatzeko onarpena ematea; horren berri emango zaio erakundeari, eta eskaera egin den zergaldian eta hurrengoetan izango ditu ondorioak, harik eta artikulua honen 6. apartatuan adierazitako ukoa gertatu arte. Zergaldirik ez duten zergei dagokienez, zerga araubide berezi hau aipatutako zergaldietan sortzen diren zerga egitateei aplikatuko zaie.

Gehienez ere, sei hilabetean ebatziko da zerga-araubide berezia onartzeko artikulua honetan ezarritako prozedura, eskabidea aurkezten denetik aurrera edo Tributu-administrazioak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 45.3 artikuluan ezarritakoarekin bat egindako errekerimenduaren ondorioz erakundeak informazio gehigarria aurkezten duenetik aurrera.

6. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren II. tituluan araututako zerga-araubide berezia aplikatzeari uko egin nahi dionak Zentsuak Kontrolatzeko eta Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuari jakinarazi beharko dio, uko egiteak ondorioak izan ditzan nahi den zergaldiko lehen hiru hiletan, enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan alta edo aldaketa eskatzeko dagokion deklarazioaren bidez. Zergaldirik ez duten zergei dagokienez, ukoak ondoreak izango ditu ukoa jakinarazi den zergaldian, hain zuzen, Sozietateen gaineko Zergaren zergaldiaren hasieratik sortzen diren

5. El reconocimiento para la aplicación del régimen fiscal especial corresponderá al Director o a la Directora General de Hacienda y será objeto de comunicación a la entidad solicitante y tendrá efectos para el periodo impositivo de solicitud y sucesivos hasta que, en su caso, se produzca la renuncia a que se refiere el apartado 6 de este artículo. En relación con los impuestos que no tienen periodo impositivo, el régimen fiscal especial se aplicará a los hechos impositivos devengados durante dichos periodos impositivos.

El plazo máximo para la resolución del procedimiento de reconocimiento establecido en este artículo será de seis meses desde la presentación de la solicitud o desde la aportación de la información adicional requerida por la Administración tributaria de conformidad con lo previsto en el artículo 45.3 del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades.

6. La entidad que desee renunciar a la aplicación del régimen fiscal especial regulado en el Título II de la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo deberá comunicarlo al Servicio de Control Censal y Tributos Locales en los tres primeros meses del período impositivo en el que desee que surta efectos la mencionada renuncia por medio de la correspondiente declaración de modificación en el censo de Empresarios, Profesionales y Retenedores. En relación con los impuestos que no tienen periodo impositivo, la renuncia producirá efectos para los hechos impositivos que se devenguen desde el inicio del periodo impositivo correspondiente al Impuesto sobre



zerga-egitateetan.

7. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren II. tituluan araututako zerga-araubide berezia aplikatzeari ezeztatzea dagokionean, Ogasuneko zuzendari nagusiari egokituko zaio zerga-araubide berezia aplikatzeko ezeztatzea ematea eta horren berri emango zaio erakundeari, eta horretan ezartzen diren ondorioak izango ditu.

9. artikulua. *Zerga-araubidea aplikatzea tokiko tributuen ondorioetarako.*

1. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 18.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, irabazteko asmorik gabeko erakundeek kasuan kasuko Tributu-administrazioaren aurrean egiaztatu beharko dute erregelamendu honen 8.5 artikuluan adieraziriko onarpena lortu dutela, edo hala badagokio, foru-arau horren 19.1.a) artikuluan ezarritako araubide bereziak, foru-arau horren II. tituluan jasotako araubide berezia salbu, aplikatzen direla, edo foru-arau horren II. tituluan jasotako araubide berezia aplikatzeari uko egin diotela.

2. Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ez ordaintzeko salbuespena dela eta, aurreko zenbakian aipatzen diren onarpena, araubide bereziak aplikatzea edo uko egitea ondasun higiezinaren kokalekua kontuan hartuta eskumena duen udalaren aurrean

Sociedades en el que esta se hubiera comunicado.

7. En caso de que proceda la revocación de la aplicación del régimen fiscal especial regulado en el Título II de la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, ésta corresponderá al Director o a la Directora General de Hacienda y será objeto de comunicación a la entidad con los efectos que expresamente se determinen en la misma.

Artículo 9. *Aplicación del régimen fiscal especial a efectos de los tributos locales.*

1. A efectos de lo dispuesto en el artículo 18.4 de la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, las entidades sin fines lucrativos deberán acreditar ante la Administración tributaria correspondiente la obtención del reconocimiento al que se refiere el artículo 8.5 de este Reglamento o, en su caso, la aplicación de los regímenes fiscales previstos en el artículo 19.1.a) de la citada Norma Foral diferentes al regulado en el Título II de la misma, o la renuncia a la aplicación del régimen especial contemplado en el citado Título.

2. En relación con la exención en el Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, la acreditación de la obtención del reconocimiento, la aplicación de los regímenes fiscales o la renuncia a que se refiere el apartado anterior deberá dirigirse al ayuntamiento competente por razón de la



egiaztatu beharko da.

3. Ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ekonomi jardueren gaineko zerga ez ordaintzeko salbuespena dela eta, dagokion udalera edo, kudeaketa egiteko eskumena duenean, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailera jo beharko da, 1. zenbakian aipatutako onarpena, araubide bereziak aplikatzea edo uko egitea egiaztatzeko.

4. Erregelamendu honen 8. artikulua xedatutakoarekin bat tokiko tributuei dagokienez zerga-araubide berezia aplikatzeko eskubidea duten zergadunek tributu horiei dagozkien tributu-zorrak ordaindu badituzte, sartutako zenbatekoak itzul dakizkiekeen eskubidea izango dute.

localización del bien inmueble de que se trate.

3. En relación con la exención en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles y en el Impuesto sobre Actividades Económicas, la acreditación de la obtención del reconocimiento, la aplicación de los regímenes fiscales o la renuncia a que se refiere el apartado 1 anterior deberá dirigirse a al ayuntamiento correspondiente o al Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, cuando esta sea la competente para su gestión.

4. Los y las contribuyentes que, teniendo derecho a la aplicación del régimen fiscal especial en relación con los tributos locales de acuerdo con lo previsto en el artículo 8 de este Reglamento hubieran satisfecho las deudas tributarias correspondientes a éstos, tendrán derecho a la devolución de las cantidades ingresadas.

IV. KAPITULUA

INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRA ETA AGIRI BIDEZKO JUSTIFIKAZIOA

10. artikulua. *Jasotako emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazioei buruzko eredu informatiboa.*

1. Kengarri diren emariak, dohaintzak, ekarpenak eta zerbitzuen doako prestazioak benetan egin direla justifikatzeko, erakunde onuradunak berariaz onartuko den eredu informatiboa aurkeztu beharko du, zeina foru-agindu bidez onetsiko duen Ogasun eta Finantza Saileko titularrak; eta, harekin batera, aurkeztu beharrekoa izango da Irabazi-asmorik

CAPÍTULO IV

OBLIGACIONES DE INFORMACIÓN Y JUSTIFICACIÓN DOCUMENTAL

Artículo 10. *Modelo informativo en relación a los donativos, donaciones, aportaciones y prestaciones gratuitas de servicios recibidas.*

1. La efectividad de los donativos, donaciones, aportaciones y prestaciones gratuitas de servicios deducibles se justificará a través de la presentación por parte de la entidad beneficiaria del modelo informativo que se apruebe al efecto por medio de Orden Foral de la persona titular del Departamento de Hacienda y Finanzas, junto con la



gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 26.2 artikuluan jasotzen den dokumentazioa.

Betiere, erakunde onuradunak adierazi beharko du, bere identifikazio-datuez gainera, ekarpena egin duten erakunde edo pertsonen buruzko informazio hau:

- a) Izen-deiturak, sozietatearen izena edo izendazioa.
- b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.
- c) Emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazioen zenbatekoa.

Gauzazko emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazioen kasuan, emaileak, ekarpena egin duenak edo zerbitzuen prestatzaileak dohaintzan emandakoaren edo ekarpenaren balioespen bat eman beharko die onuradun diren erakundeei, Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoarekin bat.

d) Orobat, aipatu behar da dohaintza edo ekarpena mezenasgoaren lehentasunezko jardueretarako jasotzen den.

e) Egutegiko urtean zehar gertatu diren dohaintzen ezeztatzei buruzko informazioa, halakorik jazo bada.

2. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 26.3 artikuluekin bat, erakunde onuradunak Zentsuak Kontrolatzeko eta Udal Zergak

documentación a que hace referencia el artículo 26.2 de la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

En todo caso la entidad beneficiaria hará constar en dicho modelo, además de sus datos de identificación, la siguiente información referida a las personas o entidades aportantes:

- a) Nombre y apellidos, razón o denominación social.
- b) Número de identificación fiscal.
- c) Importe de los donativos, donaciones, aportaciones y prestaciones de servicios gratuitas.

En los supuestos de donativos, donaciones y aportaciones en especie así como de prestaciones de servicios gratuitas, la persona donante, aportante o prestadora de los servicios deberá facilitar a las entidades beneficiarias la valoración de lo donado o aportado según lo dispuesto en el artículo 21 de la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

d) Referencia a si el donativo o la aportación se percibe para las actividades prioritarias de mecenazgo.

e) Información sobre las revocaciones de donaciones que, en su caso, se hayan producido en el año natural.

2. De acuerdo con lo previsto en el artículo 26.3 de la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, la entidad beneficiaria podrá solicitar autorización al Servicio de



Kudeatzeko Zerbitzuari baimena eskatu ahal izango dio artikulua honetan aipatzen den eredu informatiboan ez sartzeko emari, dohaintza, ekarpen edo zerbitzuen doako prestazioak, baldin eta pertsona edo erakunde emaileak ez baditu aplikatzen foru-arau horretan ezarritako pizgarri fiskalak, eta emari, dohaintza, ekarpen edo zerbitzuen doako prestazioei buruz eman beharreko informazioa lortzeak kostu handiak badakarkio erakundeari. Eskabidea izapidetzeko, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 45. artikuluan ezarritako prozedurari eta artikulua honetan adierazitako berezitasunei jarraituko zaie.

Horretarako, erakundeak justifikatu beharko ditu aurreko paragrafoko inguruabarrak, zeinetan oinarritzen den pertsona edo erakunde jakin batzuei dagokienez informazio-betebeharra bete behar ez izatea. Eskabidea eredu informatiboa aurkezteko epea hasi baino hiru hilabete lehenago aurkeztu behar da, gutxienez.

Tributu-administrazioak eskaera aurkeztu den egunaren edo errekeritutako informazio gehigarria jaso duen egunaren ondorengo hiru hilabeteen barruan ebatziko du.

11. artikulua. *Egoiliar ez diren erakunde batzuen alde egindako emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazio kengarrien justifikazioa.*

1. Erakunde onuraduna Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta

Control Censal y Tributos Locales para no incluir en el modelo informativo a que hace referencia este artículo los donativos, donaciones, aportaciones y prestaciones de servicios gratuitas recibidas en el supuesto de que la persona o entidad aportante no aplique los incentivos fiscales previstos en la citada Norma Foral y la obtención de la información a suministrar respecto a las mismas implique costes relevantes adicionales para la entidad. La tramitación de la solicitud se realizará de conformidad con el procedimiento general establecido en el artículo 45 del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades con las especialidades reguladas en este artículo.

A estos efectos, será preciso que la entidad justifique que concurren las circunstancias a las que se refiere el párrafo anterior, en las que se fundamente la exoneración del cumplimiento de la obligación de información en relación a personas o entidades concretas. La solicitud deberá presentarse con, al menos, tres meses de antelación respecto al inicio del plazo de presentación del modelo informativo.

La Administración tributaria resolverá dentro de los tres meses siguientes contados a partir de la fecha de presentación de la solicitud o desde la recepción de la información adicional requerida.

Artículo 11. *Justificación de los donativos, donaciones, aportaciones y prestaciones gratuitas de servicios deducibles realizadas a favor de determinadas entidades no residentes.*

1. Cuando la entidad beneficiaria sea alguna de las contempladas en el artículo 19.2 de la



mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 19.2 artikuluan jasotako erakundeetako bat denean, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute onura fiskala aplikatzen duten zergadunek emari, dohaintza eta ekarpen kengarriak benetan egin direla justifikatzeko:

a) Foru-arau horren 26.1. zenbakian aipatzen den eredu informatiboan jaso behar den informazioa duen dokumentua; harekin batera, artikulua horretan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da, hala badagokio.

b) Erakunde onuradunak Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 4. eta 5. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen agiria.

Aurrekoa gorabehera, onura fiskala aplikatzen duten zergadunek ez dute aurkeztu beharko zenbaki honetan ezarritako dokumentazioa, irabazteko asmorik gabeko erakundeen alde egin dituzten emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazioei buruzkoa, baldin eta erakundeok halakoak direla-eta eredu informatiboa aurkeztu behar badute.

2. Aurreko zenbakian adierazitako dokumentazioarekin batera, aurkeztu beharko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autoliquidazioa, sozietateen gaineko zergarena edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena, kontuan hartuta nork egin

Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, la efectividad de los donativos, donaciones, aportaciones y prestaciones gratuitas de servicios deducibles se justificará a través de la presentación, por parte de los y las contribuyentes que apliquen el beneficio fiscal, de la siguiente documentación:

a) Documento en el que figure la información que deba constar en el modelo informativo al que hace referencia el artículo 26.1 de la citada Norma Foral, que deberá acompañarse, en su caso, de la documentación que se señala en dicho artículo.

b) Documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos establecidos en los artículos 4 y 5 de la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo por parte de la entidad beneficiaria.

Sin perjuicio de lo anterior, los y las contribuyentes que apliquen el beneficio fiscal no tendrán obligación de presentar la documentación establecida en este apartado en relación a los donativos, donaciones, aportaciones y prestaciones gratuitas de servicios realizadas a favor de entidades sin fines lucrativos que tengan la obligación de presentar un modelo informativo en relación a los mismos.

2. La documentación a la que hace referencia el apartado anterior deberá aportarse junto con la autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades o del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, que le sea de aplicación a quien



dituen emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazio horiek.

realice dichos donativos, donaciones, aportaciones o prestaciones gratuitas de servicios.

V. KAPITULUA

INTERES OROKORREKO JARDUERETAN, LEHENTASUNEZKO JARDUERETAN ZEIN OHIZ KANPOKO INTERES PUBLIKOA DUTEN GERTAEREI LAGUNTZA EMATEKO PROGRAMETAN EGINIKO GASTUETARAKO AURREIKUSITAKO ONURA FISKALAK APLIKATZEKO PROZEDURA

Lehen atala. Interes orokorreko jardueretan egindako gastuak.

12. artikulua. *Interes orokorreko jardueretako gastu kengarriak.*

1. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zergapizgarriei buruzko Foru Arauaren 29. artikuluan xedatutakoarekin bat, egoitza iraunkorraren bidez diharduten zergadunen Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarria zehazteko, edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunen jarduera ekonomikoaren errendimendu garbia kalkulatzeko, interes orokorreko helburuetarako egindako gastuak kengarritzat hartuko dira.

2. Diru-kopuru horiek kentzeko, entitate edo pertsona interesdunek idatziz jakinarazi behar

CAPÍTULO V

PROCEDIMIENTO PARA LA APLICACIÓN DE LOS BENEFICIOS FISCALES PREVISTOS PARA GASTOS EN ACTIVIDADES DE INTERÉS GENERAL, EN LAS ACTIVIDADES PRIORITARIAS Y EN LOS PROGRAMAS DE APOYO A ACONTECIMIENTOS DE EXCEPCIONAL INTERÉS PÚBLICO

Sección Primera. Gastos en actividades de interés general.

Artículo 12. *Gastos deducibles en actividades de interés general.*

1. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, a efectos de la determinación de la base imponible del Impuesto sobre Sociedades, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes de los y las contribuyentes que operen mediante establecimiento permanente o del rendimiento neto de la actividad económica de los y las contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, tendrán la consideración de deducibles los gastos realizados para fines de interés general.

2. Para que proceda la deducción de tales cantidades, las entidades o personas



diote zerga Administraioari interes orokorreko jarduera horiek egin dituztela eta zenbatekoa izan den gastua. Jakinarazpen horrekin batera, memoria bat aurkeztu beharko dute, non azaldu eta justifikatzen duten jarduerak zertan laguntzen duen interes orokorreko helburuak betetzen (Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 5.1 artikuluan jasotzen dira helburuok).

Gastuaren kenkaria egin behar den ekitaldiaren itxiera baino lehen egingo da jakinarazpen hori.

Bigarren atala: Lehentasunezko jarduerak

13. artikulua. *Mezenasgoaren ondorioetarako jarduerak lehentasunezkoztat jotzeko eskatzeko prozedura.*

Pertsona fisikoek edo juridikoek mezenasgoaren ondorioetarako nahi badute beren jarduerak lehentasunezkoztat jo daitezzen Bizkaiko Lurralde Historikoan, zenbait arlotan (ondarea eta kultura; kultura-zabalkundea; euskara, kirol eta gazteriaren sustapena; garapenerako lankidetzeta eta kultura-aniztasuna; gizarte-inklusioa; hirugarren sektore soziala; zahartzea; emakume eta gizonen desberdintasunaren arloa), hala eskatu beharko dute, urtero, lehentasunezkoztat jotze horrek ondorioak izan behar dituen ekitaldiko abenduaren 1a baino lehen (aipatutako foru-arauaren 32.etik 42.era bitarteko artikuluetan xedatutakoaren babesean), Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 45. artikuluan ezarritako

interesadas deberán comunicar por escrito a la Administración tributaria la realización de dichas actividades de interés general, el importe del gasto, así como una memoria en la que se describa y justifique la contribución de la actividad de que se trate a los fines de interés general recogidos en el artículo 5.1º. de la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

La comunicación se efectuará antes del cierre del ejercicio en el que proceda la deducción del gasto.

Sección Segunda: Actividades prioritarias.

Artículo 13. *Procedimiento para la solicitud de declaración de actividades prioritarias a efectos de mecenazgo.*

